

Liburuak

KRITIKA

Saguzarrak egunez.
Testua eta irudiak: Jokin Mitxelena.
Aizkorri. 36 orrialde. 7 euro.



Haur eta gazte literatura
Xabier Etxaniz Erle

Betaurreko batzuen atzetik

OKER EZ BANAGO hau da Jokin Mitxelenak idazten duen bigarren lana, eta aurrekoan bezala bi saguzar dira protagonista. Mitxelena oso ezaguna da gure letretan ilustratzaile gisa, hamai-ka obrari jarri dizkio irudiak 80ko hamarkadan *Pottoko* hura egin zuenetik; baina, arestian esan bezala, oraingoan idazle eta ilustratzaile moduan ageri zaigu.

“Goiza zen eta Saguzarrak esnatzen hasi ziren egun hartan, gaua lotan eman ondoren” (4. orrialdea). Horrela hasten da bi saguzar ahizpa protagonista dituen ipuin hau. Genobebak eta Isabelak mundua ikusi nahi dute egunez, alde batetik bestera ibili bazterrek aztertzen. Horrek, baina, arazo bat sortuko die: “–Ai, Genobeba: gogora ezazu gu saguzarrak garela; Gauze ibiltzen gara airean, ez egunez. Argi gehiegi dago guretzat egun argiz!” (8. orrialdea) esango dio Isabelak ahizpari, eta hain zuzen gehiegizko argitasun horri aurre egiteko eguzkitako betaurreko batzuen bila abiatuko dira saguzar biak.

Bidaiaari ekingo diote beraz, animalia ugariarekin topo eginez; hontzak gauze ibiltzen dela eta betaurrekorik behar ez duela esango die; behiak, aldiz, belarra jateko betaurreko berde-berdeak dituela berak; igelak, urperako betaurrekoak darabiltzala; beleak, harrotasun handiz, berak ez duela betaurrekorik behar dotore egoteko... Eta bataren erantzun ezegokia edo bestearen ezezkoa jaso ondoren egun osoa eman dutela ikusi ahal izango dute saguzar bitxi hauek, juxtu-juxtu satorrak betaurreko beltzak eskaintzen dizkienean eta gauaren lehen zantzuak zeruan nabaritzen direnean.

Kolore biziz osaturiko irudiek laguntzen dute testua; ezkerreko orrialdean hitzak eta eskuinekoan irudia, biek osotasun ederra eskainiz. Izan ere, aurretik ikusi ahal izan den bezala, egitura errepikakorra du ipuinak, helburu baten bila ari diren saguzar ahizpek animalia ezberdinekin topo egin eta hauek emaniko ezezkoaren ondoren berriro jarraitu beharko baitute bidaiazten, beren helburua lortzen.

Entretengarria, sinplea eta goxoa dugu ipuina. Oso bitxia argumentuan eta egokia planteamenduan. Bizitza bidaia da, Genobeba eta Isabela betaurreko batzuen bila ibiliko dira, egun osoa emango dute haien atzetik eta azkenean, eskuratzen dituztenean... “–Ederki, Genobeba, badauzkagu gure betaurrekoak, baina, orain, ilunabarra da, ia gaua, neka-neka eginik nago eta lotara noa” (32. orrialdea) erantzungo dio Isabela zuhurrak ipuin eder honi, eta bi ahizpen ibilaldiari, amaiera emanez. ■

Afrikara bidaia, 4. ‘Erlea’-ren eskutik

Kalean da jada Euskaltzaindiak publikatzen duen *Erlea* literatura aldizkariaren laugarren zenbakia. Ohiko moduan, punta-puntako lumek idatzi dituzte aldizkariako testuak. Oraingoan, Afrika da aldizkariako gai nagusia eta kontinente hartan izan ondoren gogoan gelditu zaientz idatzi dute Lander Arbelaitz ARGIAko kazetariak, Urtzi Urrutikoetxeak

eta Juanjo Olasagarrek. Jabier Muguruzaren *Hilen logika ezkontua* ipuina, Miel A. Elustondok Jean Haritxelarri egindako elkarrizketa, Anariren, Jon Casenaveren eta Igor Estankonaren poema bana eta Koldo Izagirrek André Gideri buruz idatzitako artikulua dira, besteak beste, zenbaki honetako edukiak. ■



Erlea 4.
Batzuen artean.
Euskaltzaindia.
128 orrialde.
12 euro.

Bizitza ospatzeari buruz, ‘Hemen’ aldizkarian

Erlijio gogoetara bideratutako aldizkaria da *Hemen* eta argitaratzen duen zenbaki bakoitzean gai baten inguruan euren iritzia ematen dute hainbat egilek. Eskuetara iritsi zaigun azken alean “Bizitza ospatu” leitu dugu azalean; gai zabal horren bueltan aritu dira Dionisio Borobio, Julia Madrazo, Ana de Castro, Begoña Larrea, Jon Ariceta, Jose Huarte eta Jose Mari Kortazar –azken hori Xabier Leteren poesiari buruz, bereziki–. Horrez gain, *Leku-koak* atalean Mikel Aranguren apaizgaiak, Mirentxu Diaz erlijio irakasleak eta Esther Crespo laikoak hainbat galderari erantzun diote laburrean. Liburu iruzkinek eta otoitzek osatzen dute aldizkaria. ■



Hemen 29.
Batzuen artean.
Frontera.
72 orrialde.
8,82 euro.